

SANTA LUTZI FERIAKO XXVII. ARGAZKI RALLYA **OINARRIAK**

PARTAIDEAK: Nahi duten zale guztiek parte hartu ahal izango dute, kamera digitalarekin eta berezko txartelarekin.

IZEN EMATEA: Urretxuko Kultur Etxean, Jauregi kalean, 2019ko abenduaren 13an, goizeko 9etatik 10etara. Izena emateko unean bertan 5 € ordaindu beharko da. Adingabeak 16 urte arte, dohainik.(16 barne)

LANAK: Digitala, JPEG. Nahi diren argazki guztiak atera ahal izango dira, horietatik 36 aurkeztuz.

GAIA: Gaiak izena ematerako orduan jakinaraziko dira.

AURKEZPENA: Tarjeta deskargatzeko, Urretxuko Kultur Etxean 13:30etatik 14:00etara.

OBRAK LEHIAKETARA AURKEZTEA: Aurkeztu beharreko bilduma 6 argazkik osatuko dute. Abenduaren 14an, Gaueko 24:00etan baino lehen argazkilari bakoitzak mezu bat bidaliko du ondoko helbidera: argazkielkartea@gmail.com bertan, kontroleko argazkiak eta aukeratutako 6 argazkien zenbakiak zehaztuko ditu.

EPAIMAHAIIA: Gutxienez hiru pertsona izango dira, argazkigintzan ospe handikoak.

ERABAKIA ETA SARI BANAKETA: Erabakia hartzeko saioa eta saria banaketaren ekitaldia jendaurrean egingo dira. Erabakia hartzeko saioa 2019ko abenduaren 19an, arratsaldeko 18:30etan, Urretxuko kultur etxean. Sari banaketaren ekitaldia, berriz, 2020ko Urtarrilaren 3an , Urretxuko portaloia arratsaldeko 19:00etan.

SARIAK: Honako sari hauek izango dira:

- Argazki bilduma onenari:	250 € eta garaikurra.
- Bigarren bilduma onenari:	200 € eta garaikurra.
- Hirugarren bilduma onenari:	150 € eta garaikurra.
- Herriko bilduma onenari:	100 € eta garaikurra.
- Gaztetxoen bilduma onenari:	50 € eta diploma.
- Gaztetxoen bigarren bilduma onenari:	30 € eta diploma.
- Gaztetxoen hirugarren bilduma onenari:	20 € eta diploma.

Bide batez, argazki saridunak edo argazki aukeratu batzuk erabiliko dira Santa Lutzi FERIA 2020 programan.

OHARRAK: Inork ezingo du sari bat baino gehiago eskuratu.

Argazki lehiaketan parte hartzen duenak goitik behera onartzen ditu oinarri hauek. Oinarriotan jaso gabeko gorabehera oro antolatzaileek erabakiko dute. Sariaren bat irabazitako bildumak antolatzaileen esku geratuko dira. Lan guztien erabilera eta erreproduzio eskubidea beretzat erreserbatuko dute antolatzaileek, lanen jatorria aipatuz beti ere. Ez dira onartuko ebakinak, ukituak edo kameraren sormenezko aplikazioak, ezta kanpokoak ere.

ARGIBIDEREN BAT NAHI IZANEZ GERO, EDO INFORMAZIO ZABALAGOA, URRETXUKO KULTUR ETXEAREKIN JARRI BEHAR DA HARREMANETAN. 943 03 80 88.